



DESKRIBAPENA

Gailu hau ur botiletan edo antzeko ontzietan jartzeko diseinatuta dago, eta oso erabilgarria da ura garbitu eta edangarri bihurtzeko. Tapoia eramangarria da, eta bi iragazki independente dira. Gainera, edozein botiletan erabili daiteke eta iragazki ezberdinak Horri esker, egoeraren arabera ur mota desberdinak garbitu daitezke.

Lehenengo iragazkia gatz kentzeko erabiltzen da. Urak gatz gehiegi badu, edatea ez da segurua, eta iragazki honek ura edangarri bihurtzen laguntzen du. Horretarako, teknika bereziak erabiltzen ditu, adibidez filtrazioa, gatz kopurua gutxitzeko. Alderantzizkoa ere erabil daiteke, baina presio handia behar du, eta horregatik ez da oso erraza erabiltzen. Gainera, gatz-iragazkian ura motel pasatzen da, eta denbora gehiago behar da.

Bigarren iragazkia ur zikina garbitzeko da. Iragazki honek bakterioak eta beste hondakin txikiak kentzen ditu, poro oso txikiak dituzten mintzak erabiliz. Horri esker, ura garbi ateratzen da eta zuzenean edan daiteke botilatik, bestelako gailurik gabe. Tapoia plastikoz egina egon daiteke, urarekiko erresistentea eta garbitzeko erraza izan dadin. Horrek oso praktiko bihurtzen du, batez ere bidaietan edo kanpo-jardueretan.

Tapoia arina eta eramangarria da, eta oso egokia da mendian, bidaietan edo larrialdietan erabiltzeko. Diseinuak aukera ematen du ura zuzenean botilatik edateko, beti iragazita. Hala ere, bi iragazki izateak erabilera apur bat gutxiago erosoan izan daiteke, eta gainera, garbiketa eta mantentze-lanak konplikatuagoak izan daitezke. Horrez gain, gatz-iragazkia erabiltzean, uraren iragazketa moteltzen da eta gehiago itxaron behar da.

Azken finean, tapoi iragazkari hau oso erabilgarria da ur gazi edo zikinaren ordeztu ur garbia lortzeko. Horrek oso lagungarria egiten du edateko urik ez dagoen lekuetan. Arina eta praktikoa denez, leku askotan erabil daiteke eta egoera askotan laguntzen du. Nahiz eta batzuetan mantentzea zailagoa izan eta ura motelago iragazi, tresna baliotsua da edateko ur garbia izateko.